

Gure ICAN plataforma, Batxilergo eta DBHko ikasleentzako errefortzu aplikazioa izango da. Bertan hainbat gauza edukiko dituzte eskura gure bezeroek, hala nola, klase onlineak, apunteak eta batzuetan klaseko testu liburuak.

Aplikazio berri hau erabiltzeko modua oso erraza izango da:

Aplikazioa Play Storean edukiko dute. Deskargatu ondoren, kontu bat sortu beharko dute, eta kontu horretan datu pertsonalak, zer ikasturtetan dauden eta zein instituturi dagokion jarriko dute.

Barruan daudela, hiru atal aurkituko dituzte: online klaseak, apunteak eta liburuak.

Klaseak jaso nahi badituzte, bertan sakatu beharko dute. Hor, ikasgai guztiak azalduko dira, zein pertsona dagoen prest zerbitzua eskaintzekorekin batera. Ikasgaia aukeratu ondoren, irakaslearekin harremanetan jarri beharko dira, bertan agertzen den "chat"-aren bidez. Irakaslearekin klaseko egunak, orduak eta prezioa erabakiko dituzte (banku transferentziaz ordainduko zaio).

Bestalde, apunteak edo liburuak eskuratzeko, aurreko prozesu bera egin beharko dute. Apunte hauek, haien institutuko ikasle zaharrak edo egungo ikasleak igoko dituzte, baina aurretik, eskolako zuzendaritzak baloratuko ditu. Zein ikasgaietako apunteak aukeratu ondoren, erosi eta haien etxetik deskargatu eta inprimatu ahal izango dituzte. Dirua gurasoen kontu korrontetik deskontatuz joango da.

Aplikazio hori gure ikasleengana iritsi dadin, lehen eskola-egunetan, irakasle bakoitza hari buruz hitz egiteaz eta gela bakoitzean kartel bat jartzeaz arduratuko da. Horretaz aparte, beste hainbat tokitan propaganda egingo da, aurrerago azalduko dugun moduan.

Aplikazio hau egitea erabaki dugun bost pertsonok, institutuan egon ginenean, inoiz jaso ez genuen aparteko laguntza behar izan genuen. Hori dela eta, horrelako aplikazio bat sortzea erabaki dugu, izan ere, guk behar handia izan arren, inoiz jaso ez genuen zerbait da, eta gaur egungo ikasleei ondo etorriko zaiela uste dugu. Horretaz gain, hainbat inkesta eta ikerketa egin ondoren, institutu gehienetan ikasle askok laguntza behar dutela ikusi dugu.

Gure helburua, ikasleak motibatuta sentitzea, gainditzea, aplikatzea, era eraginkor batean lana egitea, segurtasuna sortzea eta batxilergoko noten batezbestekoa igotzea da.